➢ **Irakurri testua.**

POSTA ELEKTRONIKOA

Bidali Gorde Baztertu

Norengandik: *Garazi Lekuona*
Data: *osteguna, 2016ko ekainaren 15a, 12:50*
Norentzat: *Xabier Etxebarria*
Gaia: *Gorilei buruzko lana.*

Kaixo, Xabier:

Klaserako gorilei buruz egin behar dugun lana dela eta idazten dizut.

Interneten gorilei buruzko informazio interesgarria aurkitu dut. Hau da helbidea: *https://eu.wikipedia.org/wiki/Gorila* . Bertan, nolakoak diren esaten da: altuera , pisua, non bizi diren…

Nire ustez oso informazio baliagarria da gure lanerako.

Bideo bat ere aurkitu dut. Bertan, Cabarceno parkeko gorilak ikusten dira kulunkatzen eta fruta eta loreak jaten. Hau da helbidea: *https://www.youtube.com/watch?v=QLD7Y4GGkHQ*

Gainera, gorilen irudiak dauzkan posterra ere aurkitu dut. Hau da helbidea: http://www.glogster.com/iacasuso/gorilak-/g-6l4oj8hocim63rj2is0jma0

Bihar ikusiko dugu dena klasean eta gehien gustatzen zaiguna aukeratuko dugu.

Badut gogoa lanean hasteko!

Ziur nago ongi egingo dugula eta andereñoak nota ona jarriko digula.

Bihar arte!
Musu bat.

Garazi

Laguntza gela

LIVEWORKSHEETS

1- Animalia hauen artetik, zein da gorila?

2- Erantzun:

- Nork bidaltzen du mezu elektronikoa?
- Nori bidaltzen dio?
- Noiz bidali zuen mezua Garazik?
- Zer dela eta idazten dio Garazik Xabierri mezua?

Laguntza gela

LIVEWORKSHEETS

3- Erantzun:

- Non aurkitu du Garazik gorilei buruzko informazio interesgarria?

  ☐ **Etxeko aldizkari batean**

  ☐ **Interneten**

  ☐ **Eskolako liburu batean**

- Zer gehiago aurkitu du Garazik?

  ☐ **Bideoa**

  ☐ **Gorila baten deskribapena**

  ☐ **Notizia bat**

- Non aurkitu ditu Garazik gorilei buruzko irudiak?

  ☐ **Liburu batean**

  ☐ **Poster batean**

  ☐ **Ipuin batean**

Laguntza gela

LIVEWORKSHEETS

4- Garazik emandako informazioa ikusi eta irakurri ondoren, bete ezazu gorilei buruzko fitxa hau.

GORILAK

Altuera

Pisua

Gorputza

Non bizi dira

Zer jaten dute

Nola mugitzen dira

Laguntza gela

LIVEWORKSHEETS

5- Imajinatu Xabier zarela.
Idatzi mezu bat Garaziri erantzuteko.

Bidali Gorde Baztertu

Norengandik:
Data:
Norentzat:
Gaia:

Kaixo,

Laguntza gela

LIVEWORKSHEETS